

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	Euskotren
2. Sektorea:	Garraioa
3. Langile kopurua:	1294
4. Webgunea:	www.euskotren.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Euskotrenek zerbitzu publikoa eskaintzen du kalitatean, eraginkortasunean eta segurtasunean oinarrituta, hiritarren mugikortasun beharrianak asetzen ditu eta merkantzien igarotzean askatasun handiago bat bermatzen du.</p> <p>Eskaintzen dituen zerbitzu bakoitzak berari dagokion marka komertziala dauka:</p> <ul style="list-style-type: none">• Euskotren trena: trena, metroa eta Larreinetako funikularra• Euskotren tranbia: Bilboko eta Gasteizko tranbiak• Euskotren autobusa: errepideko garraioa• Euskotren kargo: merkantzien garraioa

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Joseba Barrena Uribe
Helbide elektronikoa:	jbarrena@euskotren.eus
Telefonia:	94 401 99 00

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	HITZHARTU EUSKARAZKO KOADERNOA
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	HitzHartu koadernoak oharrak hartzeko tamaina txikiko liburua da. Batzuetan argibideak emango dizkigu, beste batzuetan aholkuak, betiere lanean euskaraz gehiago eta hobeto egiteko: euskaraz egiteko arrazoiak, lanerako baliabideak, data eta ordua euskaraz, zenbakiak nola esan, nola egin harrera aurrez aurre edo telefonoz, nola eman jarraibideak..., eta amaieran orri zuriak, oharrak hartzeko, zalantzak apuntatzeko...

**PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK,
GRAFIKAK...**

HitzHartu



euskotren

Koaderno hau Elhuyarrek egin du Euskotrentzat, eta 2017ko maiatzean argitaratu da.



*Zerbait mugitu behar denean
eman dezakegu dena,
Euskotreneko langileontzat
gakoa da ekimena.*

*Denon bultzadaz Euskal Herriko
trenbideetan barrena,
aurrera bikain joan dadila
beti euskararen trena.*

Doinua: Norteko trenari

(Txirrita)

*Triki-traka triki-tran
Euskotreneko trena
triki-traka triki-tran
euskararen barrena.
Langileok bultzatuta
aurreraka doala*

*herriz herri auzoz auzo
zuzen joan dadila.*

U! U! U! U! U!

U! U! U! U! U!

Doinua: Martuteneko trena

(Imanol Urbietta)

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA

1. ... eta dakizuna egingo bazenu?	8
2. ... eta jarrera ona bagenu?	10
3. ... ¿Y si actúo con empatía?	12
4. Euskararen alde.....	14

2. KAPITULUA

5. Data eta ordua	18
6. Leku-izen batzuk	20
7. Zenbakiak, dirua eta beste batzuk	22
8. Deklinabidea: nondik, nora eta nongo.....	26
9. Euskal aditza	30

3. KAPITULUA

10. Gure hitzak	36
11. Hitz-elkarketa	38
12. Kalko eta erabilera desegoki batzuk	40
13. Euskaraz lan egiteko baliabideak	42

4. KAPITULUA

14. Kaixo, agur eta gehiago	46
15. Aginduak eta jarraibideak	48
16. Kexa, hobetzeko aukera	50

17. Generoa eta hizkuntza	52
---------------------------------	----

5. KAPITULUA

18. Denborazkoak	56
19. Konparazioak.....	58
Aurkibidea hitz gakoekin.....	61
Oharrak	62



tala



1. ... eta dakizuna egingo bazenu?

Euskaraz ongi jakin arren, batzuetan ez dugu ahal edo behar adina egiten. Zergatik egiten dugu hizkuntza batean edo bestean? Zeren arabera?

EUSKARAZ EGITEKO ARRAZIOIAK

- Hizkuntza batekin baino hobeto bizitzen delako bi, hiru, lau... hizkuntzarekin.
- Zurea duzulako.
- Ingurukoekin eta urrutikoekin mintzatzeko.
- Beste hiztunek sortutakoak ezagutu eta gozatu ahal izateko.
- Plazer handia ematen duelako.
- Hizkuntza komunikatzeko bitartekoa baino gehiago delako.
- Hizkuntzaren bidez lortzen dugulako gauza gehienak ezagutzea eta ulertzea.
- Hizkuntzaren bidez eraikitzen dugulako gure adimena eta pentsatzeko ahalmena, sentipenen kontzientzia eta adierazteko gaitasuna.
- Hizkuntzaren bidez sentitzen garelako familia, herri, gizarte edo komunitateko kide.
- ...

ETA ZUK? ZERGATIK EGITEN DUZU EUSKARAZ?

Idatzi hemen zure arrazoiak:

BOST PRAKTIKA ON, EUSKARAZ EGIN NAHI DUENARI LAGUNTZEKO

1. Egin euskaraz lehen agurra.
2. Egin euskaraz ezezagunen aurrean.
3. Egin euskaraz euskaldun berriekin.
4. Egin euskaraz euskaldun hartzaileekin.
5. Mantendu euskaraz elkarrizketa errazetan.

2. ... eta jarrera ona bagenu?

Hizkuntzak eztabaida-iturri eta haserretzeko bide ere izaten ditugu batzuetan. Autoa gidatzen goazenean bezala, geureari baino ez diogu erreparatzen. Ez dugu parean daukagunaren larruan jartzeko keinurik ere egiten. Garrantzitsua da guretik besteena ere ulertzeko ahalegina egitea.

ZER EGITEN DUT? ZER EGIN BEHARKO NUKE?

- “Háblame en cristiano” esaten didatenean...
- Euskaraz eginda, gaztelaniaz erantzuten didatenean...
- Euskaraz esan didatena ulertu ez dudanean...
- Euskaraz egiten didatenean...
- Inguru euskaldun batean nagoenean...
- Euskaraz egin duela entzun dudan norbaitekin...
- Erantzuteko erraza den zer edo zer galdetu didatenean...

JARRERA ONERAKO OINARRIAK

1. **Utzi lotsa** alde batera.
2. **Landu egoerak** aurretik.
3. **Erabili** dakizun euskara.
4. Ez galdu **irribarrea**.
5. **Bete** lanean ezarritako **hizkuntza-irizpideak** beste edozein lan-eginkizun bezala.

ETA BESTE BATZUK...

6. **Aktibatu:** zuk euskaraz egiten baduzu, zure ingurukoek ere egingo dute.
7. **Edonon, edonorekin:** ez izan aurreiritzirik, hartu jokabide normaltzat euskaraz egitea.
8. **Zuk euskaraz, besteak erdaraz:** ulertzen badizu, ez daukazu zertan gaztelaniaz egin.
9. **Motibatu besteak:** erdaldun asko daude euskararen alde.
10. **Motzean, beti euskaraz:** elkarrizketa gehienak oso laburrak dira, betiko esaldiak, errazak.
11. **Lasai:** edozein egoeratan, saiatu lasai hartzen, irribarretsu, umorez eta jarrera eraikitzailez.
12. ...



3. ... ¿Y si actúo con empatía?

No hace falta conocer las entrañas y los entresijos de un idioma para tratar de comunicarse en él. Basta con poner en práctica lo que se conoce, y si llegamos hasta cierto límite, decir de manera cortés que se responderá en castellano.

LAS NORMAS DE LA CORTESÍA

1. **Saluda:** buenos días, buenas tardes, buenas noches, y responde al saludo.
2. **Sonríe:** siempre ayuda, facilita las relaciones.
3. Trata a las demás personas como te gustaría que te trataran a ti.
4. Evita actitudes o expresiones que puedan resultar ofensivas.
5. Se **amable**, trata a las personas con educación.
6. **No interrumpas** a quien esté hablando.
7. **Escucha** activamente, y no te burles de las opiniones que no compartas.
8. **Opina:** trata de no discutir, pero da tu opinión.
9. **Agradece:** no olvides decir “gracias”.
10. ...

RECUERDA...

- Si todas las personas entendiésemos el euskera, se podría utilizar en todos los ámbitos y siempre.
- No hay idiomas difíciles o fáciles. El castellano tiene sólo 5 vocales, pero 1.100 verbos irregulares.
- El euskera y el castellano son más próximos que lo que parece.
- El euskera también es un idioma europeo y moderno que nos aporta unas señas de identidad.
- Todas las lenguas son importantes.
- Una actitud positiva ayuda a lograr los objetivos.
- Con tesón se logran objetivos que parecen imposibles.

Sabes más euskera de lo que crees. Aprende fórmulas básicas para poder comunicarte en euskera.

4. Euskararen alde

NOLA NABARMENDU EUSKARAZKO TESTUAK?

- **Zer testu edo idazki mota** da? Pentsatu euskarazko eta erdarazko testuak non edo nola kokatu.
- **Datuak bata bestearen ondoan:** bi hizkuntzak elkarren ondoan jarriz gero, lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz; zutabeka, euskara goian eta erdara behean.

Izena/Nombre

Abizenak/Apellidos

Izena	Abizenak
Nombre	Apellidos

- **Testu laburrak:** oso laburrak badira, euskarazkoa goiko aldean eta gaztelaniazkoa behekoan. Luzeagoak, orriaren alde berean, bi zutabetan edo orriaren alde banatan idaztea. Zutabeak: ezker aldean euskarazkoa (begiak alde horretara doaz lehenengo).
- **Testu luzeak,** orri bat baino gehiagokoak: orrialde asko ez badira, zutabeka, ezkerrean euskaraz, eskuinean gaztelaniaz (buletinetan bezala).
- **Testu luzeak** (txostenak, aktak...). Elkarren ondoan joan behar badute, ezkerreko orrialdean gaztelaniazkoa eta eskuinekoan euskarazkoa (eskuinekoak du lehentasuna). Edo: liburuaren aurreko aldean bat eta atzekoan, ipurdiz gora, bestea.

TIPOGRAFIA

- Zenbat eta **letra handiagoa**, orduan eta garrantzi handiagoa.
- **Letra lodiz** idatzitakoak dira nabarmenenak, eta **etzanak** garrantzi txikiagoa du.
- **Erabili** letra lodia neurritz: gehiegi nekagarria da, eta azkenean ez du nabarmentzen.
- Erabili **LETRA LARRIAK** izenburuetarako, ez testu luzeak idazteko.
- Erabili **letra-koloreak** hizkuntzak bereizteko eta euskarazkoa nabarmentzeko.
- Kartela edo oharra *eskuz* idatzi behar baldin baduzu, ahalegindu letra garbia eta ulertteraza egiten.





2. atala



5. Data eta ordua

ORDUA

Ordua puntuan: *ordu bata, ordu biak, hirurak, laurak, bostak...* Lau eta hiru hitzekin, erabili *-retan: hiruretan, lauretarako...* Gainerakoekin, *-etan: seietan, zortzietarako...*

ETA ERDIAK, LAURDEN, GUTXI...

- Erabili “eta erdiak”: *Sei eta erdiak dira.*
- Pluraleko marka bigarren osagaien: *Hiru eta erdiak.*
- Laurdenekin bi aukera: *Ordu bi eta laurdenak* eta *Ordu biak eta laurden.*
- Leku eta denborazko kasuetan (*noiz, noiztik, noizko...*), erabili plurala: *Ordu bata eta laurdenetan, Ordu bi eta erdietan.*
- *Gutxi* eta *gutxiago* biak erabil daitezke, baina *gutxi* da formarik hedatuena: *Zazpiak hamar gutxi.* Deklinatzean, mugagabeen: *Zazpiak hamar gutxitan.*

ORDUA ZENBAKI BIDEZ

- Bi punturekin bereizi orduak eta zenbakiak.
- Erabili bakoitzeko bi zifra: *00:12, 12:10...*

ORDUAK ETA MINUTUAK DEKLINATZEA

- Orduak, pluralean (ordu bata izan ezik): *17:00etan (bostetan)*.
- Minutuak, singularrean beti: *12:10ean (hamabiak eta hamarrean)*.

DATA (EGUTEGIA)

- **Labur**, zenbaki hutsez: urtea-hilabetea-eguna (*2018-01-10*).
- **Luze**, lekuarekin eta datarekin: lekua(n), urteko hilabetearen egun(e)a(n) (*Deba, 2018ko urtarrilaren 10a edo Deban, 2018ko urtarrilaren 10ean*).

HAINBAT GOMENDIO

- Data **labur** jartzean, urtea lau zenbakirekin, hilabetea birekin eta eguna birekin.
- Hilabeteen izenak letra **xehez**.
- Hilabeteek eta asteko egunek **ez daukate berezko -arik**.
- Urtea zifraz: **ez jarri punturik** milakoen eta ehunekoaren artean.
- **Data beste era batera**: abenduak 9. Zenbakia deklinatuz gero, ez erabili:
**Abenduak 10eko → Abenduaren 10eko.*
- **Bizkaieraz** asteko egunak: *astelehena, martitzena, eguaztena, eguena, barikua/egubakoitza, zapatua eta domeka.*
- **Urteak esatean**, akordatu zenbakien artean **eta** behar den lekuan jartzeaz;
**Bi mila hamazazpi → Bi mila eta hamazazpi.*

6. Leku-izen batzuk

EUSKAL HERRIKOAK

- Herri batek **euskaraz izen bat** eta **erdaraz beste bat** duenean, bi izenak elkarrekin, bereizi zehar-marra (/) baten bidez: *Lizarra / Estella*.
- **Bi herrik edo gehiagok administrazio-elkarte bat** osatzen dutenean, bi izenak marratxo (-) baten bidez bereizi eta biak letra larriz hasita: *Markina-Xemein*.
- **Amaierako -a** dela eta, kontuan izan:
 - * Askok **berezkoa** dute amaierako **-a** hori. Izen horiek bokalez amaitutako beste edozein izenen moduan deklinatuko dira: *Donostiatik, Zumaiaiko...*



- * Beste herri-izen batzuetan, ordea, amaierako **-a** hori ez da berezkoa, **artikulua** baizik. Kasu horiek hiztegieta honela ageri dira: *Azkoitia, -a, Ermua, -a...* Leku-izen horiek *nondik, nora* eta *nongo* kasuetan galdu egiten dute amaierako **-a**: *Azkoititik, Ermuko...*
- Leku-izen batzuek **ez daukate -arik** amaieran: *Altsasu, Aulesti, Legazpi...*
- Jentilizioak letra xehez idazten dira: *Eibar*, baina *eibartar*.

ESPAINIAKO ETA FRANTZIAKO LEKU-IZENAK

- Izenak zehaztean, kontuan izan da leku-izen horiek euskaraz izandako **tradizio, usadio eta hurbiltasuna**: *Bordele, Gaztela, Kordoba, Madril, Paue...*
- Leku-izen ezagun eta hurbilenak **euskal fonetikaz** jarri dira: *Akitania, Bartzelona, Errioxa...*
- Tradizio sendorik ez duten jatorrizko izenak **era ofizialean** idazten dira, inoiz toki bereko hizkuntza jatorren grafiak errespetatuz: *Alacant, Lleida, Ourense...*
- Gaztelaniaz eta frantsesez **azentu grafikoa** duten hitzak azentuearekin nahiz azenturik gabe idatz daitezke euskaraz: *León* edo *Leon*. Erabiliz gero, deklinatzean ere mantendu.
- Izen nagusiak **hiztegiatan** jasota daude. Zalantzarik izanez gero, jo hiztegiara.

KARDINALAK

		20: hoge
		21: hogeita bat
		22: hogeita bi
		23: hogeita hiru
	
		30: hogeita hamar
		31: hogeita hamaika
	
		38: hogeita hemezortzi
		39: hogeita hemeretzi
		40: berrogei
		50: berrogeita hamar
		60: hirurogei
		70: hirurogeita hamar
		80: laurogei
		90: laurogeita hamar

100: ehun		
200: berrehun		
300: hirurehun		
400: laurehun		
500: bostehun		
600: seiehun		
700: zazpiehun		
800: zortziehun		
900: bederatziehun		
	1.000: mila	
	2.000: bi mila	
	3.000: hiru mila	
	4.000: lau mila	
	10.000: hamar mila	
	100.000: ehun mila	
		1.000.000: milioi bat
		1.000.000.000: mila milioi (miliar bat)
		1.000.000.000.000: bilioi bat

- **Hogetik** ehuneraino: *berrogeita bat, hirurogeita bederatzi, laurogeita hamazazpi...*
- **Ehunekoak** lotuta: *hirurehun, bostehun, zortziehun...*
- **Milakoak eta milioikoak** bananduta: *lau mila, berrogeita zazpi mila, milioi bat, ehun milioi...*
- **Ehunik milarainoko zenbakiak** ehunekoak eta hamarrekokoak **eta** partikularekin lotuta: *berrehun eta hogeita bost, bostehun eta hirurogeita hemeretzi...*
- **Milatik gorako zenbakiak**, irizpide bera: *mila eta hiru; hiru mila, laurehun eta berrogeita hamasei...*
- Zenbakiak adieraztean, akordatu **eta** erabiltzeaz (ahoz “ta”, “da”...) behar denean:

**Bi mila hamazazpi → Bi mila eta hamazazpi*

ORDINALAK

Zenbaki ordinaletan zenbakien arteko **ordena adierazten** dute, *-garren* atzizkiaren bidez:

- *-garren* ahoskatzen den bakoitzean, **jarri puntua**: *Atano X. arekin, XX. mendean...*
- Oso-osorik letraz: *hogeita batgarren, bosgarren...*

7. Zenbakiak, dirua eta beste batzuk

EUROAK

Hona hemen zenbait aholku:

- Txanponak eurotan/euroetan, salneurria eurotan/euroetan.
- Galderak: *Zenbatean?* (ez **zenbatetan*) edo *Zenbat eurotan/euroan?* (biak zuzenak).
- Erantzunak: 3 euroan/eurotan, 100 eurora/eurotara, 500 eurotik/eurotatik (euroan, eurora, eurotik... zuzenak dira diru-kopuruak kantitate osoak direnean).
- Txanponak: 1 euro (ahoz, euro bat), 2 euro, 1 euro(-)zentimo (ahoz, eurozentimo bat), 2 euro(-)zentimo, 5 euro(-)zentimo, 10 euro(-)zentimo, 20 euro(-)zentimo eta 50 euro(-)zentimo.
- Billeteak: 5 euro, 10 euro, 20 euro, 50 euro, 100 euro, 200 euro eta 500 euro. 10 euroko billetea.

NEURRIAK

- **Tamaina:** *Zer luzera du mahaiak?, Zenbat luze da mahaiak? Mahaiak bi metroko luzera du. Mahaiaren luzera bi metro da. Mahaia bi metro luze da. Biltegia 85 m luze, 37 m zabal eta 3,5 m garai da.*
- **Zenbatzailea+unitatea+gaia:** *bost kilo sagar.* Zenbatzailea 1 bada: *unitatea+zenbatzailea+gaia (kilo bat patata);* baina ikurra erabiliz gero: *1 kg patata.*

- **Zerbait neurtzeko ontzi bat**, neurria adierazteko, lehenik kantitatea (ontziaren izena+determinatzailea) eta bigarrenik edukia: *Plater bat zopa jan dut, Platerkada bat zopa jan dut, Plater bete zopa jan dut.*
- **Pisua:** *Egunean 100 gramo haragi gorri jatea ez da ona. Tona erdi (bat) txatarra lapurtu dute.*
- **Bolumena:** *Auto horrek bost litro erregai baino gutxiago kontsumituko du hirian.*
- **Luzera:** *Lau metro oihal beharko dituzu soineko hori josteko. Proiektuaren arabera, 28 kilometro ibai gehiago babestuko dituzte. Milaka metro pelikula grabatu dira.*
- **Azalera:** *Arabar bakoitzari 4.500 metro koadro baso dagozkio. Duela hiru urte bi hektarea mahasti jarri zituzten.*
- ...

Sarritan **ikurrak** erabiltzen dira pisua, abiadura eta abar adierazteko (km, kg, h...). Horrelakoetan, atzikia zuzenean lotu ikurrari marratxo baten bidez: *2 km-ko ibilbidea, 3 kg-ko paketea...*

8. Deklinabidea: nondik, nora eta nongo

BOKALEZ AMAITZEN DIREN HITZAK

BIZIDUNAK ETA BIZIGABEAK			IZEN BEREZIAK		
MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA	LEKU-IZENA	PERTSONA-IZENA	

Absolutiboa		mendi	mendi	mendiAK	Baiona	Edurne
Partitiboa		mendirik	–	–	BaionariK	EdurneriK
Ergatiboa		mendiK	mendiAk	mendiEk	BaionaK	EdurneK
Datiboa		mendirI	mendiARI	mendiEI	Baionari	Edurneri
Genitiboa		mendirEN	mendiAREN	mendiEN	BaionarEN	EdurnerEN
Leku-genitiboa (NONGO)	(bizigabeak)	mendiAKO	mendiKO	mendiETAKO	BaionAKO	–
	(bizidunak)	katuEN BAITAKO	katuAREN BAITAKO	katuEN BAITAKO	–	Edurne(r)EN BAITAKO
Instrumentala		mendiz	mendiAZ	mendiEZ	BaionaZ	EdurneZ
Soziatiboa		mendirEKIN	mendiAREKIN	mendiEKIN	BaionarEKIN	EdurnerEKIN
Motibatiboa		mendi(r)EN)GATIK	mendiA(REN)GATIK	ENGATIK mendi AKATIK	Baiona(r)EN)GATIK	Edurne(r)EN)GATIK
Destinatiboa		r)ENTZAT mendi r)ENDAKO	A)RENTZAT mendi ARENDAKO	ENTZAT mendi ENDAKO	Baiona r)ENTZAT r)ENDAKO	r)ENTZAT Edurne r)ENDAKO
Prolatiboa		TZAT mendi TAKO	–	–	Baiona TZAT TAKO	Edurne TZAT TAKO
BIZIGABEAK SOILIK						
Inesiboa		mendiTAN	mendiAN	mendiETAN	BaionaN	–
Ablatiboa (NONDIK)		TATIK mendi TARIK	mendiTIK	ETATIK mendi ETARIK	BaionaTIK	–
Adlatibo soila (NORA)		mendiTARA(T)	mendiRA(T)	mendiETARA(T)	BaionaRA(T)	–
Muga-adlatiboa		mendiTARAINO	mendiRAINO	mendiETARAINO	–	–
Hurbiltze-adlatiboa		mendiTARANTZ	mendiRANTZ	mendiETARANTZ	BaionaRANTZ	–
Adl.aren gainean eraikia		mendiTARAKO	mendiRAKO	mendiETARAKO	BaionaRAKO	–
BIZIDUNAK SOILIK						
Inesiboa		katu(r)EN)GAN	katuA(REN)GAN	ENGAN katu AKAN	–	Edurne(r)EN)GAN
		katuEN BAITAN	katuAREN BAITAN	katuEN BAITAN	–	Edurne(r)EN BAITAN
Ablatiboa		katu(r)EN)GAN(D)IK	katuA(REN)GAN(D)IK	ENGAN(D)IK katu AKANDIK	–	Edurne(r)EN)GAN(D)IK
		katuEN BAITARIK	katuAREN BAITARIK	katuEN BAITARIK	–	Edurne(r)EN BAITARIK
Adlatibo soila		katu(r)EN)GANA(T)	katuA(REN)GANA(T)	ENGANA(T) katu AKANA	–	Edurne(r)EN)GANA(T)
		katuEN BAITARA(T)	katuAREN BAITARA(T)	katuEN BAITARA(T)	–	Edurne(r)EN BAITARA(T)
Muga-adlatiboa		katu(r)EN)GANAINO	katuA(REN)GANAINO	ENGAINO katu AKANAINO	–	Edurne(r)EN)GANAINO
Hurbiltze-adlatiboa		katu(r)EN)GANANTZ	katuA(REN)GANANTZ	ENGANANTZ katu AKANANTZ	–	Edurne(r)EN)GANANTZ
Adl.aren gainean eraikia		katu(r)EN)GANAKO	katuA(REN)GANAKO	katuENGAKO	–	Edurne(r)EN)GANAKO

“a” bokalez bukatutako hitzetan gertatzen diren aldaketak:

a + e = e alaba + ek → alabek; **a + a = a** alaba + ak → alabak; **a + o = o** alaba + ok → alabok

“a” artikuluz bukatutako leku-izenek (**Azkoitia, Azpeitia, Basaburua, Bizkaia, Britainia Handia, Deustua, Ermua, Iruñea**, etab.) partitiboan (**Azkoitirik**), leku-genitiboan (**Azkoitiko**), prolatiboan (**Azkoitizat/Azkoititako**), adlatiboetan (**Azkoitira, Azkoitirantz, Azkoitiraino**) eta ablatiboan (**Azkoititik**) azken “a” galdutako egiten dute, izen arruntren deklinabidea baitute eredu: **mendian/Azkoitian**, baina **mendiko/Azkoitiko** (ez “Azkoititako”).



euskotren

KONTSONANTEZ AMAITZEN DIREN HITZAK

		BIZIDUNAK ETA BIZIGABEAK			IZEN BEREZIAK	
		MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA	LEKU-IZENA	PERTSONA-IZENA
Absolutiboa		haran	haranA	haranAK	Eibar	Miren
Partitiboa		haranIK	—	—	EibarrIK	MirenIK
Ergatiboa		haraneK	haranAK	haranEK	EibarreK	MireneK
Datiboa		harani	haranARI	haranEI	Eibarri	Mireni
Genitiboa		haranEN	haranAREN	haranEN	EibarrEN	MirenEN
Leku-genitiboa (NONGO)	(bizigabeak)	haraneTAKO	haraneKO	haranETAKO	Eibar(€)KO	—
	(bizidunak)	gizonEN BAITAKO	gizonAREN BAITAKO	gizonEN BAITAKO	—	Miren(EN) BAITAKO
Instrumentala		haraneZ	haranAZ	haraneZ	EibarreZ	MireneZ
Soziatiboa		haranEKIN	haranAREKIN	haranEKIN	EibarrEKIN	MirenEKIN
Motibatiboa		(e)GATIK haran ENGATIK	haranA(REN)GATIK	(e)GATIK haran ENGATIK	Eibar(rE(N))GATIK	Miren(EN)GATIK
Destinatiboa		ENTZAT haran ENDAKO	ARENZAT haran ARENDAKO	ENTZAT haran ENDAKO	ENTZAT Eibarr ENDAKO	ENTZAT Miren ENDAKO
Prolatiboa		TZAT haran DAKO	—	—	TZAT Eibar TAKO	TZAT Miren TAKO
BIZIGABEAK SOILIK						
Inesiboa		haraneTAN	haraneAN	haranETAN	EibarreN	—
Ablatiboa (NONDIK)		eTATIK haran	haraneTIK	ETATIK haran	Eibar(€)TIK	—
		eTARA		ETARIK		
Adlatibo soila (NORA)		haraneTARA(T)	haraneRA(T)	haranETARA(T)	Eibar(€)RA(T)	—
Muga-adlatiboa		haraneTARAINO	haraneRAINO	haranETARAINO	Eibar(rE)RAINO	—
Hurbiltze-adlatiboa		haraneTARANTZ	haraneRANTZ	haranETARANTZ	Eibar(rE)RANTZ	—
Adl.aren gainean eraikia		haraneTARAKO	haraneRAKO	haranETARAKO	EibarrERAKO	—
BIZIDUNAK SOILIK						
Inesiboa		gizonENGAN	gizona(REN)GAN	gizon ENGAN AKAN	—	Miren(EN)GAN
		gizonEN BAITAN	gizonAREN BAITAN	gizonEN BAITAN	—	Miren(EN) BAITAN
Ablatiboa		gizonENGAN(D)IK	gizona(REN)GAN(D)IK	gizon ENGAN(D)IK AKAN(D)IK	—	Miren(EN)GAN(D)IK
		gizonEN BAITARIK	gizonAREN BAITARIK	gizonEN BAITARIK	—	Miren(EN) BAITARIK
Adlatibo soila		gizonENGANA(T)	gizona(REN)GANA(T)	gizon ENGANA(T) AKANA	—	Miren(EN)GANA(T)
		gizonEN BAITARA(T)	gizonAREN BAITARA(T)	gizonEN BAITARA(T)	—	Miren(EN) BAITARA(T)
Muga-adlatiboa		gizonENGANAINO	gizona(REN)GANAINO	gizon ENGANAINO AKANAINO	—	Miren(EN)GANAINO
Hurbiltze-adlatiboa		gizonENGANANTZ	gizona(REN)GANANTZ	gizon ENGANANTZ AKANANTZ	—	Miren(EN)GANANTZ
Adl.aren gainean eraikia		gizonENGANAKO	gizona(REN)GANAKO	gizonENGANAKO	—	Miren(EN)GANAKO

Mugatu plurallean **plural hurbila** izenekoa erabiltzen da, batez ere bizkaieraz, hurbiltasuna adierazteko; bizigabe nahiz bizidunekin erabiltzen da. Deklinabide hurbilean **-a**-ren ordez **-o**- erabiltzen da mugatzaile gisa (**mendiok/haranok, mendioid/haranoi, mendingo/haranon, mendiotako/haranotako, ...**).

8. Deklinabidea: nondik, nora eta nongo

BAT		BATZUK
MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
bat	bata	batzuk
batek	batak	batzuek
bati	batari	batzuei
baten	bataren	batzuen
batekin	batarekin	batzuekin
batentzat	batarentzat	batzuentzat
bate(n)gatik	batarengatik	batzuegatik
batez	bataz	batzuez
bate(a)n/batengan	batean/batarengan	batzuetan/batzuengan
bateko	bateko	batzuetako
batera/batengana	batera/batarengana	batzuetara/batzuengana
batetik/batengandik	batetik/batarengandik	batzuetatik/batzuengandik
baterantz/batenganantz	baterantz/batarenganantz	batzuetarantz/batzuenganantz
bateraino/batenganaino	bateraino/batarengaino	batzuetaraino/batzuenganaino
baterako/batenganako	baterako/batarengako	batzuetarako/batzuenganako

bat hitzak deklinabide mugagabearen formak hartzen ditu. Dena dela, **beste** hitzaren agerraldi mugatuaren eraginpean dagoenean, ez bestela, deklinabide mugatuko formak hartzen ditu (**bata txikia zen, beste handia**).

OHIKO HUTSEGITEAK

- Hitzak deklinatu gabe ageri dira **hiztegian**, atzizkirik gabe, baina erabiltzen ditugunean deklinatu egin beharko ditugu, kasuan kasuko atzizkia erantsita.
- Kontuan izan gaztelaniazko “**de**” **guztiak** ez direla *nongo* euskaraz: hitz elkartuak (*argazki-kamera, patata-tortilla...*), *noren* edo *zeren* (*geltokiaren aurrean, langilearen eginbeharra...*), *noizko* (*larunbatetako parranda*)...
- Desberdinak dira eta **ez dira nahasi behar *norengandik*** (nondik) eta ***norengatik*** (kausa, arrazoia):
 - **Alabarengandik edozer egingo luke* → *Alabarengatik edozer egingo luke.*
- **Amaieran -a daukaten hitzen deklinabidea** berezia da, eta batzuek nahasi egiten dituzte mugatu plurala eta mugagabea:
 - **Hainbat tabernetan galdetu genuen* → *Hainbat tabernatan galdetu genuen.*
 - **Zein enpresetan egiten duzu lan?* → *Zein enpresatan egiten duzu lan?*

TRINKOA ETA PERIFRASTIKOA

Trinkoek hitz bakarra erabiltzen dute aditzaren esanahia eta aditz-jokoa ezartzeko; adibidez, *etorri* (*nator, zatoz, etab.*). Bi hitzek osatzen dituzte aditz perifrastikoak: lehenengoak, adizki jokatu gabeak (adibidez, *jan*) edo nagusiak; eta bigarrenak, zati jokatuak (adibidez, *dut*), aditz laguntzaileak.

NAGUSIA ETA LAGUNTZAILEA

Aditz nagusiak esanahia eta denbora adierazten ditu. Lau denbora nagusi daude: burutua, puntuala, ohikoa eta etorkizunekoa.

Aditz laguntzaileak pertsonak adierazten ditu, baita aditz nagusiaren denboraren informazioa osatu ere. Hiru pertsona mota ager daitezke aditz laguntzailean: subjektua, objektu zuzena eta zeharkako objektua, eta horiek, batzuetan elkarrekin, lau multzo nagusi osatzen dituzte: **nor**, **nor-nori**, **nor-nork** eta **nor-nori-nork**. Aditz laguntzaile guztiak osatzeko 7 pertsona erabiltzen dira (ni, hi, hura, gu, zu, zuek eta haiek), betiere **nor**, **nori** edo **nork** moduan, eta honela sailka daitezke: indikatiboa, ahalera, subjuntiboa eta agintera.



BESTE AUKERA BATZUK

Ez dago zertan jakin aditzaren taula osorik, eta batzuetan beste aukera batzuk ere badauzkagu:

- *Aditz laguntzailea isildu.*
- *Baldintzetan -z gero erabili.*
- *Ahalerakoetan **ahal** eta **ezin** erabili.*
- *Subjuntiboak -t(z)ea eta -t(z)eko bidez egin.*
- *Aginteran aditz nagusi soila erabili.*
- ...



ADITZ LAGUNTZAILEA

		NOR		NOR-NORI		NOR-NORK				NOR-NORI-NORK					
ORAINA	naiz	NOR	tzai	NORI			NOR	u	T						
	haiz da gara zara zarete	GA	tzai zai	K/N O GU ZU			NA HA D GU GA ZA	it u u it	K/N u u GU ...		D i (zki)	K/N O GU ZU	K/N T T		
IRAGANA	nintzen	NOR	tzai	NORI			NOR	u	T	N	NOR	NOR	NORI	NORK	
	hintzen zen	NIN Zi	tzai tzai	T K/N	N	nuen	NIND HIND ()	u GU u	T K/N eN	N	H Z GU	K/N ZU	N N N	N	
BALDINTZA	banintz	NOR	tzai	NORI	T	banu	NOR	u	NORK	T	NOR	NOR	NORI	NORK	
	bahintz balitz bagina bazina bazinete	ba ba ba ba ba	NIN HIN ZIN ZIN ZIN	tzai tzai tzai zki	K/N O GU	bahu balu bagenu bazenu bazinete	ba ba () ba	NIND GIN ZINT ZINT	u u u u	T K/N -	N	ba ba ba ba ba	H L i (zki)	T K/N O GU ZU	
BALDINTZAKOAK	nintzateke	NIN	tzai	T	ke	nuke	nintzateke	NIND	u	ke	T	N	T	ke	
	hintzateke litzateke ginateke zinateke zinateteke	HIN ZIN ZIN	tzai tzai	K/N O	ke	huke luke genuke zenuke zenukete	hituzke lituzke genituzke zenituzke zenituzkete	HIND () GIN ZINT ZINT	u z u u	K/N ke te ZUE	H L	K/N O	ke ke ke ke		
ONDORIOA	nintzatekeen	NIN	tzai	T	ke eN	nukeen	nintzatekeen	NIND	u	ke	T	N	N	T	ke eN
	hintzatekeen zatekeen ginatekeen zinatekeen zinatetekeen	HIN GIN ZIN ZIN ZIN	tzai tzai tzai tzai	K/N GU ZU ZUE	ke te N ke eN	hukeen zukeen genukeen zenukeen zenuketen	hituzkeen zituzkeen genituzkeen zenituzkeen zenituzketen	HIND () GIN ZINT ZINT	u z u u	K/N ke te ZUE	H Z	K/N O GU ZU	ke ke ke ke	eN eN eN eN	

		NOR		NORI				NOR		NORK		NOR		NORI		NORK		
AHALERA	ORAINA	naiteke	NA	ki	T	ke		NA	zake	T			T	ke	T			
		haiteke	HA	ki	K/N	ke		HA	zake	K/N			K/N	ke	K/N			
		daiteke	DA	ki	O	ke		De	zake				iO	ke	—			
		gaitezkeGA	ki	zki	GU			GA	it	zake	GU	D	ieza (zki)	GU	ke	GU		
zaitezkeZA	ki	zki	ZU	ke		ZA	it	zake	ZU			ZU	ke	ZU				
zaitezkeZ	ZA	ki	zki	ZUE	ke te		ZA	it	zake	te	ZUE		ZUE	ke	ZUE			
daitezke	DA	ki	zki	E	ke		D	it	zake	TE			iE	ke	TE			
AHALERA	IRAGANA	ninteeke	NEN	ki	T	ke	eN	nezakeen	nitzakeen	NINT	zake	T	N	N	T	ke	eN	
		hinteeke	HEN	ki	K/N	ke	eN	hezakeen	hitzakeen	HINT	zake	K/N	N	H	K/N	ke	eN	
		zitekeen	ZE	ki	O	ke	eN	zezakeen	zitzakeen	()		—	eN	Z	iO	ke	eN	GEN
		gintzakeen	GEN	ki	zki	GU	ke	eN	genezakeen	genitzakeen	GINT	zake	GU	N	ieza (zki)	GU	ke	eN
zintzakeen	ZEN	ki	zki	ZU	ke	eN	zenezakeen	zenitzakeen	ZINT	zake	ZU	N	ke	eN				
zintzaketan	ZEN	ki	zki	ZUE	ke te	N	zenezaketan	zenitzaketan	ZINT	zake	te	ZUE	N	ZEN		ZUE	ke te	N
zitezkeen	ZE	ki	zki	E	ke	eN	zezaketan	zitzaketan	()			TE	N	Z	iE	ke te	N	
ALEGIAZKOA	ninteke	NEN	ki	T	ke		nezake	nitzake	NINT	zake	T		N	T	ke			
	hinteke	HEN	ki	K/N	ke		hezake	hitzake	HINT	zake	K/N		H	K/N	ke			
	liteke	LE	ki	O	ke		lezake	litzake	()		—		L	iO	ke			
	gintzake	GEN	ki	zki	GU	ke	eN	genezake	genitzake	GINT	zake	GU		GEN	ieza (zki)	GU	ke	
zintzake	ZEN	ki	zki	ZU	ke	eN	zenezake	zenitzake	ZINT	zake	ZU		ZU	ke				
zintzaketan	ZEN	ki	zki	ZUE	ke te		zenezaketan	zenitzaketan	ZINT	zake	te	ZUE		ZEN	ZUE	ke te		
litezke	LE	ki	zki	E	ke		lezaketan	litzaketan	()			TE		L	iE	ke te		
SUBJUNTIBOA	ORAINA	nadin	NA	ki	T		N		NOR	za	T		N	T	T		N	
		hadin	HA	ki	K/N		N		HA	za	K/N		N	K/N	K/N		N	
		dadin	DA	ki	O		N		De	za	—	N		D	ieza (zki)	iO	—	N
		gaitez	GA	ki	zki	GU		N	GA	it	za	GU		N	GU	GU		N
zaitez	ZA	ki	zki	ZU		N	ZA	it	za	ZU		N	ZU	ZU		N		
zaitez	ZA	ki	zki	ZUE	te	N	ZA	it	za	te	ZUE		N	ZUE	ZUE		N	
daitez	DA	ki	zki	E		N	DA	it	za	TE		N	iE	TE		N		
SUBJUNTIBOA	IRAGANA	nendinNEN	ki	T	N		nezan	nitzan	NINT	za	T		N	T		N		
		hendinHEN	ki	K/N	N		hezan	hitzan	HINT	za	K/N		N	H	K/N		N	
		zedin	ZE	ki	O		N	zezan	zitzan	()		—	N	Z	iO		N	
		gintzen	GEN	ki	zki	GU		N	genezan	genitzan	GINT	za	GU		N	GEN	ieza (zki)	GU
zintzen	ZEN	ki	zki	ZU		N	zenezan	zenitzan	ZINT	za	ZU		N	ZEN	ZU		N	
zintzeten	ZEN	ki	zki	ZUE	te	N	zenezaten	zenitzaten	ZINT	za	te	ZUE		N	ZEN	ZUE	te	N
zitezzen	ZE	ki	zki	E		N	zezaten	zitzaten	()			TE	N	Z	iE	te	N	
AGINTERA	()						—	—	NOR	NA	za	()		NOR	T		()	
	hadi	HA	ki	K/N			ezak/n	itzak/n				K/N			K/N		K/N	
	bedi	BE	ki	O			—	—	Be	za	—			iO		—		
	()	()		GU			—	—	GA	it	za	()		(B)	ieza (zki)	GU	()	
zaitez	ZA	ki	zki	ZU			ezazu	itzazu			ZU			ZU		ZU		
zaitezte	ZA	ki	zki	ZUE	te		ezazue	itzazue			ZUE			ZUE		ZUE		
bitez	BE	ki	zki	E			—	—	B	it	za	TE		iE		TE		

Pertsona-markak adizkiriaren amaieran direlarik, ondoko aldaketak gertatzen dira: T→DA (dut, baina dudala, hindudan); K→A (duk, baina duala, ninduan); N→NA (dun, baina dunala, nindunan).

ERATORPENA

Atzizkien bidez hitzak sortzea. Adjektibo, izen eta aditzei atzizkia erantsi eta esanahi berriko hitzak sortzea.

- **Izena+atzizkia:**

bulego+ari→ *bulegari* (*bulegoan lanean aritzen dena*)

- **Aditza+atzizkia**

galdetu+keta→ *galdeketa* (*galdetzearen ekintza eta ondorioa*)

- **Adjektiboa+atzizkia**

nagusi+tasun→ *nagusitasun* (*nagusia denaren nolakotasuna*)

Sortzen diren hitz berri horiek izan daitezke aditzak (*egiaztatu*), izenak (*eranskin*) eta adjektiboak (*aldakor*). Emankorrenak izenak eta adjektiboak sortzekoak dira; izan ere, gaur egun aditz sortzaile bakarra dugu: *-tu* (adibidez, *gaztetu*).



MAILEGUTZA

Beste hizkuntza batetik hartutako elementu lexikalak gurera ekartzea eta etxekotzea.

- **B** eta **P** letren aurrean **N** idazten da (ez M): *inprimatu, inportante, enpresa...*
- Jatorrizko **V** duten hitzak **Bz** idazten dira euskaraz: *balio, berde...*
- **C, CH** eta **W** letren ordeaz, euskaraz dagozkienak idatzi: *kale, txorizo...*

Salbuespenak: siglak, zenbait izen berezi eta irentsi gabeko maileguak. Adibidez, *campus, IVAP, New York, yen...*

AHOLKU BATZUK

- Egoeraren eta solaskidearen arabera, egokitu hizkera: baten batentzat oso arrunta dena beste batentzat ezezaguna izan daiteke (adibidez, *balazta* eta *freno*).
- Ezagutu eta erabili hiztegiak.
- Osatu pixkanaka zure hiztegia; bilatu, idatzi eta ikasi zure eguneroko hitzak.

11. Hitz-elkarketa

Bi hitz autonomo elkartuta, hitz berria sortzea da hitz-elkarketa.

BEREIZITA IDATZIKO DIRA

Aposizioak.

Egin, eman, hartu eta *eragin* aditzekin osatzen diren aditz-elkarteak.

Etxez etxe moduko bikoiztapenak.

Egin berri modukoak.

Mahai gainean gisako postposizioak.

Bigarren osagaia *bila, eske* edo *falta* dutenak.

Lehen osagaia *erdal, euskal, giza* eta *itsas* duten elkarteak, ihartuak ez diren neurrian.

Lehen osagaiaren amaierako *-a* galtzen denean.

MARRAREKIN IDATZIKO DIRA

Gorri-gorria moduko bikoiztapenak.

Apurka-apurka bezalako bikoiztapenak.

Seme-alabak, zuri-gorri modukoak.

Barra-barra, plisti-plasta bezalakoak.

Gernika-Lumo moduko leku-izen elkartuak.

LOTURIK IDATZIKO DIRA

Jarleku moduko elkarteak (aditz-erroa+izena).

Adagaitz bezalako izaera elkarteak (aditz-erroa+izenondoa).

Odolustu moduko aditz-elkarte arruntak.

Bigarren osagaia hauek dauzkatenak: *-aldi, -buru, -dun, -gabe, -gile, -gin, -gintza, -gizon, -(g)une, -kide, -(k)ume, -orde, -zain, -za(i)ntza* edota *-zale*.

Lehen osagaia *aurre-, azpi-* eta *gain-* duten izen-elkarteak.

Lauburu moduko elkarteak (zenbatzailea+izena).



MARRAREKIN EDO MARRA GABE

Eguzki lore, eguzki-lore moduko izen elkartu arruntak.

Kale garbitzaile, kale-garbitzaile modukoak.

Elkarteko lehenbiziko osagaiak *-ia* amaiera duenean, *-arekin* nahiz *-a* gabe idatz daiteke (*biologia-azterketa, biologia azterketa* eta *biologi azterketa*).

Bestelako *-a* itsatsiak ez dira galtzen elkarketa egiten denean, eta hitzak osorik eman behar dira. Salbuespen dira, dena dela, honako sei hitz hauek: *burdina, eliza, hizkuntza, kultura, literatura* eta *natura*.

MARRAREKIN EDO LOTURIK

Sudur-luze moduko elkarte arruntak (izena+adjektiboa).

BESTE GOMENDIO BATZUK

- **Bi hitzak letra larriz** hasten direnean, egokiagoa da **marra gabe** idaztea: Bizkaiko Foru Aldundia, Mugikortasun Plana...
- Izan **koherente**. Marratxoa dela eta, geuk erabakiko dugu aukerakoetan erabili edo ez, baina ahalegindu beti koherente jokatzeko.

12. Kalko eta erabilera desegoki batzuk

Kalkoak, berez, ez dira txarrak, eta harremanetan dauden hizkuntza guztiek dauzkate interferentziak. Arazoa sortzen da behar ez denean erabiltzen badira.

AHOZKO KALKOAK

Barkagarriagoak dira, baina ahal dela saihestekoak dira, ez erabili: *a ver, en cambio, es que, según, o sea que, ya que...* Horietako gehienak alferrik dira.

IDATZIZKO KALKOAK

Batzuetan hain barneratuta dauzkagu, aukera jatorragoak ere ahaztu egiten ditugu. *Aldaketak jasan, arreta deitu, burutu, desberdin, etaabar luze bat, faltan bota, ilea hartu...* Horietako bakoitzaren aurrean euskarak badauka ordain egokia.

ERABILERA DESEGOKI BATZUK

ERE: OHIKO AKATSAK

- Hasieran jartzea, aurretik ezer gabe:

**Ere badaki gehiago→ Gehiago ere badaki.*

- Aditz laguntzailearen atzetik jartzea (mendeko esaldia izan gabe: konpletiboa, denborazkoa...):

**Egia da ere berandu dela→*

Egia da, baita ere, berandu dela / Berandu dela ere egia da.

- Aditza agerian badago, erabili *ere* bakarrik; aditza agerian ez badago, *ere bai, ere ez, baita... ere, ezta... ere*:

**Nik ere bai egingo dut→ Nik ere egingo dut.*

**Martak badaki, eta Mirenek ere→ Martak badaki, eta Mirenek ere bai.*

- Ezezkoetan, ezezkoa bi aldiz erabiltzea:

**Ez dago inor ere ez→ Ez dago inor ere.*

ETA

- Zenbakiekin, eta bereziki urteak, kopuruak, emaitzak... esatean, ez erabiltzea *eta* dagokion lekuan:

**Bi mila hamazazpigarren urtea→ Bi mila eta hamazpigarren urtea.*

**2,20 €, bi hogeï→ 2,20 €, bi (euro) eta hogeï (zentimo).*

MUGAGABEA

- Zaindu berezko *-az* amaitzen diren hitzetan, eta *hainbat* eta *zenbaitekin*:

**Bilboko 10 tabernetan→ Bilboko 10 tabernatan.*

**Hainbat enpresetako ordezkariak→ Hainbat enpresatako ordezkariak.*

13. Euskaraz lan egiteko baliabideak

ZER	NOLAKOAZ/ZERTARAKO
ELHUYAR	Euskara-Gaztelania/Gaztelania-Euskara
EUSKALTERM	Datu-base terminologikoa
EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA	Ortografikoa eta arau-emalea
HARLUXET	Entziklopedia
LABAYRU	Euskara-Gaztelania/Gaztelania-Euskara
ZEHAZKI	Gaztelania-Euskara

ZER	AZALPENA	NON
EUSKALBAR	Nabigatzailean txertatzen den tresna-barra bat da, oso erabilgarria aldi berean hainbat lekutan bilatzeko aukera ematen duelako.	http://euskalbar.eu/
HIZTEGIBAR	Tresna-barra bat da, Chrome eta Internet Explorerrekin erabiltzekoa.	http://www.euskara.euskadi.eus/r59-20660/es/contenidos/informacion/euskarazko_softwarea/es_9568/hiztegi_bar.html
XUXEN	Lehenengo zuzentzaile ortografikoa. Ortografia-akatsak detektatzeaz gain, proposamen gramatikalak ere egiten ditu.	http://xuxen.eus/
HOBEX	Zuzentzaile ortografikoa eta lexikoa, euskaraz akats ortografikorik gabe eta, gainera, lexiko zuzen eta eguneratuarekin idazten laguntzen duen tresna.	http://www.uzei.eus/hobex/

ITZULTZAILEAK	
ZER	NON
EUSKO JAURLARITZA	http://www.itzultzailea.euskadi.net/traductor/portalExterno/text.do
OPENTRAD	http://www.opentrad.com/eu/?
GOOGLE	https://translate.google.es/?hl=eu
MATXIN	matxin.elhuyar.eus

ZER	AZALPENA
JAGONET	Euskaltzaindiaren zerbitzua
DUDANET	IVAPen zerbitzua
SAREKO EUSKAL GRAMATIKA	EHUren gramatika
IVAPEKO ESTILO LIBURUA	IVAPek erabiltzen dituen irizpide nagusiak laburbiltzen ditu
AZPIDAZKI	EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalarentzat egindako kontsulta-tresna
EHULKU	Euskal Herriko Unibertsitatearena
EIMAREN ESTILO-LIBURUAK	Ahoskera, puntuazioa, morfosintaxia, letra larriak...
IKASBIL	HABEren materiala biltzen du
EUSKALJAKINTZA	Ordiziako Jakintza Ikastolaren webgunea
IRALE	Irakasleak Alfabetatu eta Euskalduntzea programa
EHUTSI	Euskara hobetzeko ariketak
EIBZ	Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa
SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA	Hainbat azalpen eta ariketa

14. Kaixo, agur eta gehiago

TELEFONUZ

- Erantzun euskaraz. Esan solaskideari nora deitu duen, eta ondoren agurtu: *egun on, eguerdi on, arratsalde on, (bai), esan?...*
- Zain egoteko eskatzeko: *Itxaron pixka bat, mesedez.*
- Norbait ez dagoela esateko: *Orain ez dago. Enkargurik ematea nahi (al) duzu?*
- Amaiera: *Eskerrik asko deitzeagatik eta hurrengo arte.*

IDATZIZ

- Nolako harremana, halako agurra, bai hasieran, bai amaieran.

	HASIERAN	AMAIERAN
Formala	<ul style="list-style-type: none">• Jaun/andre agurgarria:	<ul style="list-style-type: none">• Adeitasunez, agur.• Mila esker eta ongi izan.
Neutroa	<ul style="list-style-type: none">• Jaun/andre hori:• Agur t'erdi:	<ul style="list-style-type: none">• Horrenbestez, agur.• Beste barik, ongi izan.
Hurbila	<ul style="list-style-type: none">• Laguna:• Adiskide hori:	<ul style="list-style-type: none">• Agur bero bat.• Laster arte.
Lagunartekoa	<ul style="list-style-type: none">• Kaixo:• Aupa:	<ul style="list-style-type: none">• Aio, Pelaio.• Agur, Ben Hur!

- Deikia eta agurra erabiliz gero, **bereizi komaren bidez**:

Zuzendari jauna, agur:

- Hasierako agurrari dagokion lerroa **bi puntuz** itxi eta hurrengo lerroa pasa.

AURREZ AURRE

- **Egin lehen hitzak euskaraz:** *Kaixo, Egun on, Eguerdi on, Arratsalde on, Gabon.*
- **Lehen agurrari erantzuteko:** *Berdin! Baita zuri ere!*
- Solaskidearengandik urrun edo eserita egonez gero, **zutitu eta hurbildu.**
- Saiatu **euskara hurbila** erabiltzen, egokitu hizkera solaskidearenera.
- **Irribarreak** harremanak asko gozaten eta errazten ditu.
- **Utzi azaltzen** eta hitz egiten, aurreiritziak baztertu eta entzun.
- **Pazientzia izan.**
 - **Galdetzeko:** *Zer nahi duzu? Lagunduko dizut? Zer behar duzu?*
 - **Amaierako agurrak:** *Nahi duzun arte! Agur, ba! Ondo izan!*



15. Aginduak eta jarraibideak

Aginduak era askotara eman daitezke, labur eta argi: *Ixo!, Kanpora!, Isilduko zarete?...* Sarritan, hitzak bezain garrantzitsuak dira esateko erak (indarra, intonazioa, keinuak...).

LAGUNTZAILERIK GABE

Aditzarekin, erabiliena: *Etorri hona!, Pasa ogia, mesedez!...* Ezezkoetan ere berdin: *Ez esan txorakeriarik!, Ez joan oraindik!...* Erraza da sortzen eta erabiltzen.

LAGUNTZAILEAREKIN

Aditz laguntzaileekin osatzen da, eta aditz nagusiak ez du aspektu-markarik hartzen: *Etorri zaitetz hona!, Pasa iezadazu ogia, mesedez!...* Ezezkoetan ere berdin: *Ez ezazu esan txorakeriarik!, Ez zaitetz joan oraindik!...*

BESTE AUKERA BATZUK

Aginterarik gabe ere eman daitezke aginduak, bestelakoak erabilia: *Onera duzu joatea, Bota behar duzu dirua, Kalterik ez joatea...*

ARAUAK

Ohikoena izaten da ezezko esaldia erabiltzea, “Ezin da...”, edo bestelakoak: “Debekatuta dago...”, “Legeak ez du baimentzen...”, “Legearen aurkakoa da...”.

Ohiko debeku batzuk: “Ez jarri oinak eserleku gainean”, “Ez margotu kristala”, “Ez bota paperik lurrera”...

JARRAIBIDEAK

Era askotara azal daitezke eman beharreko pausoak, baina gehienetan hauek azalduko dira:

- **Hasteko / Lehenik eta behin...**
 - **Gero...**
- **Ondoren...**
 - **Azkenik / Bukatzeko...**

16. Kexa, hobetzeko aukera

ARRAZOIAK ETA ESKAERAK

Kexa egiten duenean, gehienetan esaldi **kausalak** erabiliko ditu.

Zergatik? galderari erantzuteko edo arrazoi zuzena emateko, ohikoa izaten da *-(e)lako* atzizkiak baliatzea:

Autobusa berandu iritsi zelako galdu nuen hegazkina.

Pozik nago jai eman didatelako.

Pieza aldatu zuen izorratuta zegoelako.

Azalpenak emateko, berriz, *bait-* aurrizkia eta *-eta* enklitikoa erabiltzen dira:

Banoa, berandu da-eta.

Ezin naiz joan, lana daukat-eta.

Megafonia erabiliko dut, bidaiari guztiak jakitea komeni baita.

Eskaeran, berriz, ohikoa izaten da **nominalizazioaz baliatzea**, eta zehatzago adierazita, *-t(z)ea* edo *-t(z)eko* atzizkiak erabiltzea:

Eskatu du trenean hainbesteko berokuntzarik ez jartzeko.

Bidezkoa iruditzen zait makinak irentsitakoa itzultzea.

Eskatzen dut trenen maiztasuna areagotzea.



KEXEN AURREAN

- Jar zaitetz bezeroaren/erabiltzailearen lekuan, eta ahalegindu adeitsu izaten.
- Bezeroa/erabiltzailea aurrez aurre baldin badago, izenagatik deitu.
- Eman eskerrak bezeroari/erabiltzaileari, harentzat ere ahalegina izan delako kexa egitea.
- Ulertu bezeroaren/erabiltzailearen kexatzeko arrazoia, eta eskatu barkamena, kalterik edo eragozpenik eragin badiogu. Hitz eman ahalik eta azkarren konponduko duzuela.
- Kexa egin nahi duena aurrez aurre baldin badago, arretaz entzun zer esaten duen, eta lagundu adierazi nahi duena argi adierazten.
- Saiatu testuinguruaren gaineko informazio osagarria lortzen, hainbat galderaren bidez: nork, noiz, nola, non...
- Ahalik eta lasterren konpondu kexa, eta zure esku ez baldin badago, lehenbailehen bideratu.
- Kexari erantzundakoan, atzera bezero/erabiltzailearekin harremanetan jarri, ontzat jotzen duela ziurtatzeko.

17. Generoa eta hizkuntza

Hizkuntzak, berez, ez dira sexistak, hizkuntzen erabilera desegokiak eragiten du sexismoa. Euskarak ez dauka genero-markarik, baina horrek ez du esan nahi bereizketarik egiten ez dugunik.

EUSKARAZ

HITANOA

- Ez erabili jende multzo batean.
- Ez erabili karteletan, iragarkietan, mezuetan...

GIZONA

Gizonezkoak eta emakumezkoak izendatzeko, egokiagoa da erabiltzea “pertsona” edo “gizaki”, baita “gizon-emakume” ere.

LANBIDEAK

Gaztelaniatik hartutako lanbide batzuen izenak maskulinoaren atzikia mantentzen dute, baina emakumezkoak eta gizonezkoak izendatzeko erabiltzen dira: *notario, presidente...*

BESTE HITZ BATZUK

Euskaraz, hitz baliokide batzuek ez daukate esanahi berbera, ñabardurak daukate emakumeei eta gizonei aplikatzen zaizkienean; emakumeenak esanahi mugatuagoa eta konnotazio peioratiboagoak daukate.


GAZTELANIAREN ERAGINEZ

- Gaztelaniazko *padres, abuelos, niños...* euskaraz ez dira “aitak”, “aitonak”, “semeak”...
- “El personal trabajador” erabiltzen denean gaztelaniaz, euskaraz nahikoa da “langileak”.

BESTELAKOAK

- Emakumeak edozertan aritzeko gai dira. Ez jarri genero-rol tradizionaletan (etxea garbitzen, seme-alabak zaintzen, dendari...).
- Oreka bilatu emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Emakumeak agerian jarri, ikusteko moduan, eta ahal bada adierazi aniztasuna (adina, jatorria...).
- Sarritan geuk bultzatzen dugu bazterkeria:
 - txiste –grazioso?– bat
 - bideo –barregarri?– bat
 - atsotitz –gatzdun?– bat...

Ez eman bide.



5. atala



18. Denborazkoak

Aurrekotasuna	
Perpau nagusiko ekintza mendeko perpausaren aurretik gertatzen da.	<i>baino lehen -t(z)erako</i>
Ondokotasuna	
Perpau nagusiko ekintza menpeko perpausekoaren ondoren gertatzen da.	<i>eta gero -takoan</i>
Aldiberekotasuna	
Bi ekintzak aldi berean gertatzen direla ematen da aditzera.	<i>-en bakoitzean -t(z)ean</i>
Iraupena	
Aditz nagusiak adierazten duen gertakariak zenbat denbora irauten duen adierazten du mendeko perpausak, ekintza nolako denbora-tartean gauzatzen den.	<i>-enetik -en arte</i>

Bereizi	
<i>eta gero, ondoren</i>	<i>eta geroren aurretik aditza beti: amaitu eta gero</i>
Maiztasuna	
<i>-ero atzikia</i>	Erabili zenbakirik gabe; zenbakia erabiliz gero, erabili <i>-ean behin, -etik behin...</i>
Bereizi	
Pixka bat lehenago (<i>Atea zabaltzerakoan</i>) Momentuan (<i>Atea zabaltzean</i>) Ondorenean (<i>Atea zabaldutakoan</i>)	
Geroaldia-ohiturazkoa	
Ez nahasi geroaldia eta ohiturazkoa: <i>Gero esaten dizut</i> → <i>Gero esango dizut</i> <i>Zer, joaten gara?</i> → <i>Zer, joango gara?</i>	

19. Konparazioak

ATALA	AZALPENA
Konparazioak, oro har	<p>Idea berbera adierazteko era bat baino gehiago daukagu aukeran: baiezka, ezezka, termino bat edo bi alderatuta, kantitatea eta kalitatea...</p> <p>Adibidez:</p> <p>“Nire etxea handia da. Zurea txikia” →</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Zure etxea nirea baino txikiagoa da.</i> • <i>Nire etxea zurea baino handiagoa da.</i> • <i>Zure etxea ez da nirea bezain handia.</i> • <i>Zure etxea ez da nirea adinakoa.</i> • <i>Zure etxea ez da hain handia.</i>
Berdintasuna, bi termino, kalitatea	<i>bezain</i>
Berdintasuna, bi termino, kalitatea	<i>adinako</i>
Berdintasuna, bi termino, kantitatea	<i>adina</i>
Berdintasuna, termino bakarra, kalitatea	<i>honen</i> <i>horren</i> <i>hain</i>
Berdintasuna, termino bakarra, kantitate	<i>honenbeste</i> <i>horrenbeste</i> <i>hainbeste</i>

ATALA	AZALPENA
Desberdintasuna, kualitatea	<i>baino... -ago</i>
Desberdintasuna, kantitatea	<i>gehiago, gutxiago</i>
Desberdintasuna	<i>Zenbat eta... -ago, orduan eta -ago</i>
<p>Ohiko akatsak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bi terminoetako bakarra deklinatzea • Kantitatezkoetan, mugatuta erabiltzea • Zenbat eta...rekin bigarren zatian gero eta... -ago erabiltzea 	<p><i>*Nik zu adina diru daukat→ Nik zuk adina diru daukat.</i></p> <p><i>*Nik zu adina dirua daukat→ Nik zu adina diru daukat.</i></p> <p><i>*Ez dago hainbeste jendea→ Ez dago hainbeste jende.</i></p> <p><i>*Zenbat eta ederragoa, gero eta garestiagoa→ Zenbat eta ederragoa, orduan eta garestiagoa.</i></p>

AURKIBIDEA HITZ GAKOekin

HITZA	Orrialdea	HITZA	Orrialdea
Aditza	30-36	Hitanoa (generoa)	52
Agindua	48	Hitz-elkarketa	38-39
Aldibereketasuna (denborazkoak)	56	Hizkuntzak ikasteko arrazoiak	8-9
Araua	49	Hiztegiak	42
Aurrekotasuna (denborazkoak)	56	Idatziz (agurrak)	46
Aurrez aurre (harrera)	47	Iraupena (denborazkoak)	56
Bat (deklinabidea)	28	Itzultzaile automatikoak	43
Batzuk (deklinabidea)	28	Jarraibideak	49
Berdintasuna (konparazioak)	58	Jarrera onerako oinarriak	10
Cortésia	12	Kalkoak	40
Data	19	Kausalak (-elako, bait-, -eta)	50
Denborazkoak	56	Kexen aurrean	51
Desberdintasuna (konparazioak)	59	Konparazioak	58
Eratorpena	36	Lanbideak (generoa)	52
Ere (erabilera okerrak)	40-41	Leku-izenak	20-21
-ero (erabilera okerrak)	57	Mailegutza	37
Eskaerak (-tzea, -tzeke)	50	Mugagabea (erabilera okerrak)	41
Eta (erabilera okerrak)	41	Neurriak	24-25
Euroak	24	Ondokotasuna (denborazkoak)	56
Euskalbar	42	Ordua	18-20
Euskara hobetzeko eta ikasteko	42-43	-t(z)erakoan, -t(z)ean, -takoan (bereiztea)	57
Euskara nabarmentzeko	14-15	Telefonoz (harrera)	46
Euskaraz egin nahi duenari laguntzeko	9	Zalantzak argitzeko	42
Generoa	52	Zenbaki kardinalak	22
Geroaldia eta ohiturazkoa (erabilera okerrak)	57	Zenbaki ordinalak	23
Gizona (generoa)	52	Zer egiten dut?	10
Gramatikak-eta	43	Zuzentzaile ortografikoak eta gramatikalak	42

